



El 'Elcano' de Zuloaga se expone temporalmente en San Telmo.



A la izquierda: 'Fiesta de la Cofradía de Atzara', de Ortiz de Echagüe.

por ejemplo, una *Sagrada familia* de Rubens —en este ala se pueden encontrar también otros grandes nombres como el de El Greco o Guido Reni—. De cualquier modo, si una obra destaca sobre las demás es una *Inmaculada Concepción*, de Mateo Cerezo *El joven*, pintada entre 1663 y 1665 en pleno Barroco, después de que el Vaticano convirtiese en dogma la virginidad de María.

Los óleos del XIX enseñan el tratamiento de nuevas temáticas, como el retrato de la burguesía, en vez de la nobleza; lo urbano, como el caso de la pintura *Plaza de Palacio* (Barcelona), de Modesto Teixidor; o lo más directamente ligado a la revolución industrial, como el *Accidente ferroviario*, de Enrique Martínez Cubells y Ruiz Diosayuda.

La exposición permanente dedicada al arte histórico se cierra con la sala

San Telmo ha habilitado un espacio para exhibir una obra invitada, que cambiará periódicamente, en su ala dedicada al arte histórico

en la que se reúnen siete obras de Antonio Ortiz de Echagüe, siete momentos que reflejan la "evolución de su pintura". Desde *El beso de la madre*, con ecos a Vermeer que culminó con apenas 22 años, hasta la colorida *Mi mujer y mi hija en la estancia*, fruto de sus felices años en Argentina. En medio, la obra más destaca de este artista con ascendencia vasca, la multipremiada *Fiesta de la Cofradía de Atzara*, inspirada por la tradición y costumbres corsas, un óleo de enormes dimensiones —más de cuatro metros— que ha sido trasladado desde Gordailua con un dispositivo especial.

OBRA INVITADA En esta renovación, San Telmo ha habilitado un espacio para exhibir periódicamente una obra invitada. En este caso se trata de un alzado en acuarela de la propuesta que Ramón Cortázar hizo para el balneario de la Perla a finales del XIX. La idea es que la pieza que se ubica en este espacio, que se encuentra en el centro del ala, vaya cambiando cada cierto tiempo. ●

Atxaga: "Obaba euskal landa munduaren estereotipoaren aurkako borroka da"

Ereinek asteasuarraren 'Bi anai' eleberriaren hirugarren edizio orraztua kaleratu du


✎ Harri X. Fernández
 📷 Iker Azurmendi

DONOSTIA — Bernardo Atxagak ez du atzera begira egoteko ohiturarik, "amorrúa" ematen omen dio iraganeko testuak berrikusi beharrak. Halere, Asun Garikano itzultzaile eta lankide fidelarekin *Bi anai* (1985) eleberriaren hitzak eta formak orraztu ditu, Ereinen eskariz. Hain zuzen ere, irudizko Obaba agertzen den Atxagaren lehen nobelaren hirugarren edizioa kaleratu berri du argitaletxeak, gaur egungo euskararen arauetara moldatuta. Obaba hori, idazlearen Asteasu jaioterriko trasunto hori, bere ibilbidearen "berme gunetzat" du Atxagak. Horrela adierazi zuen atzo Donostiako izandako agerraldian.

Idazleak, idazle den heinean, bere praktika aurrera eramateko garaian, atzean aldarite "politiko bat" edo "ideologia bat" behar duela iritzi du orain gutxi argitaratutako *Paradisua-ren kanpoko aldeak* liburuaren autoreak. Zentzu horretan, Obaba "estigma" baten kontra sortu zuela gogora ekarri nahi izan zuen, konkretuki euskal landa munduaren estereotipo "homogeneizatzailearen" aurkako "borroka" bezala planteatu omen zuen. Landa-eremuko herritarrak, "balioaren mapa batean, ertzetan agertuko" lirateke: "Gure jendea ezjakina zen, superstizioso, oraindik karlista, kosmopolitismoaren aurkako...". Kontrako ezaugarri edo "begiratu goxoen" aurka ere egin nahi izan zuen, "barojismoak" Euskal Herriren inguruan inposatutako horien kontra.

Errealismo magikoan hain ondo errotutako alegiazko herria nola jaio zen gogoratu zuen. 1982. urtean, irratiko nobeletan gidioak idazten zituen. Eta horretan zebilela, Obaba bezalako unibertso baten beharra sentitu zuen. Hori bai, irratirako eskaini beharreen bere golkorako gorde zuen lehen ideia hura eta, azkenean, Obabakoak bilduman argitaratu zuen, *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* ipuinean.

Aurretik, ordea, kontakizun horren "arnasarekin", aipatutako estereotipoei aurre egiteko lehen hurbilketa aurkeztu zuen *Bi anai* eleberrian. Asmatutako Obaban kokatuta dago Paulo eta Daniel anaiekin kontakizun laburra. "Psikologiarik" gabeko eleberria sortzerako jo zuen, aurretik "narrazio naturalista" bat aurrikusi bazuen ere. Hori bai, oso propioa zuen ingurune horretan, landa eremuetako erlijio katolikoaren pisua ere azalerratu nahi izan zuen. Horretarako, Jainkoaren figuraren ordezkotzat sortu zuen, Mintzoa deritzona. Iza-



Atxaga 'Bi anai'-ren edizio berritua eskuan duela, atzo Donostian.

ki "gupidagabe" hori, hain zuzen, Obaba inguruan dauden txori, katargorri, antzara, izar eta sugeei mintzatzen zaie, bere nahia bete dezaten. Horiék dira, zelatan edo, Paulo, Daniel eta beste hainbat pertsonaiei segika ibiltzen dena, haiek egiten dituztenak erregistratzeko eta, honenbestez, irakurleari aldiberekotasunez deskribatzeko. Animalia horiek guztiak dira kontakizun kaleidoskopiokoaren narratzaileak, pentsamenduak ere ezagutzen dituztenak. Horrek ez du esan nahi, ordea, Atxagak adierazi bezala, ekintzen epai edo arrazoiketa psikologikorik dagoenik, idazleak haie-tatik ihes egin nahi izan zuelako.

ZENBAIT ALDAKETA Idazleak ondoan izan zuen edizio lan berria zuzendu duen Garikano. 1988. urtean *Obabakoak* argitaratu zuenetik elkarrekin ari dira. "Bakarka ez nintzen iristen nahi nuen lekura", aitortu zuen Atxagak, lankide eta bikote ere badenaren ekarpena goraipatuz. "Gogo txarrez" bada ere, esan zuen broma eginez autoreak, Garikanoren aholku

eta proposamenak jarraitu omen ditu. Testuan egindako aldaketa asko "automatikoak" izan direla azaldu zuen edizioaren arduradunak, hizkuntzaren araudiek zuzenean ekarri dituztelako. Beste hitz edo lokalismo batzuk ere kendu egin dituzte, irakurlearen ulergaitasuna ahalbidetzeko asmoarekin, kontzeptu aldrebesek irakurlea narratziotik atera dezaketelakoan.

Gainera, hirugarren edizio honetan, lehen aldiz, atal bakoitzak izenburu propioa du, bakoitzak bere narratzaileari sarrera ematen diolarik. Beste azken aldaketa bat ere egin dute, amaieran konkretuki. Bere garaian, atzerriko kritikotatik *Bi anai* laudatu zuela ekarri zuen gogora Atxagak, hori bai, idazle europarrak zuten "arte eta saiakera" moldeetan, amaierak ez omen zuen nahi beste asetzen. Hori hobetzeko intentzioarekin, azken pasadizoa ere orraztu egin dute idazleak eta edizioaren arduradunak. Hori bai, aurreko bertsioaren bat irakurria duenak bakarrik antzemango dio zein den testu honetako berritasuna. ●